

## 79. FITXA GIPUZKOA – Gipuzkoako udalei eta tokiko erakunde txikiei herritarren partaidetza sustatzeko dirulaguntzak

**Nori zuzendua:** Gipuzkoako udalak eta tokiko erakunde txikiak

---

**Sarbide-esteka:** [Egoitza Elektronikoa - Gipuzkoako Foru Aldundia](#)

---

**Erreferentziazko araudia:** [Onestea Gipuzkoako udalei eta tokiko erakunde txikiei herritarren partaidetza sustatzeko dirulaguntzen 2025eko deialdia](#)

---

**Eremuak:** Herritarren partaidetza

---

**Zenbatekoa:** 600.000 €

---

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2025/03/06

---

### Laburpena

Dirulaguntza hauen xedea Gipuzkoako udalerrriak diruz laguntzea da herritarrek esparru publikoaren kudeaketan eta erabakian parte hartzeko duten eskubidea bermatzeko, batetik, eta herritarren parte hartzea sustatzeko duten gaitasuna indartzeko, bestetik.

Gipuzkoako udal eta toki-erakunde txiki guztiak aurkez daitezke, banaka zein taldeka.

### Diruz lagundu daitezkeen jarduerak

Dirulaguntzen xede izango dira herritarren parte hartzea sustatzen duten esperientziak eta eskatzaileak aurkeztuko duen eskaera hurrengo epigrafeetako bati lotu beharko dio:

#### **A epigrafea: herritarren partaidetza sustatzen duten prozesuak:**

Epigrafe honek herritarren partaidetza sustatzen duten prozesuak diruz laguntzea helburua du, herritarrei politika publikoen zuzentasuna, egokitasuna eta eraginkortasuna hobetzeko bideak eskaini ahal izateko: politika publikoa identifikatzerakoan, bultzatzerakoan, gauzatzerakoan eta ebaluatzerakoan, ordenantzak eta planak egiteko prozesuetan, eta, orobat, administrazio-prozeduretan eta tokiko gobernu-organoen erabakietan.

Partaidetza prozesu bat horrela definitzen da: «zenbait eragile edota pertsonaren partaidetzarekin zerikusia duen partaidetzazko uneen eta ekintzen sekuentzia bat da (tailerrak, talde-dinamikak, bilerak, erakusketak, elkarreragileak, foro edo lantalde birtualak), erabaki bat hartu beharra dagoen gai edo arazo bati buruzko ikuspegi edo ikuskera desberdinak eskaintzeko».

Beraz, egitura, antolaketa eta plangintza egokia duten esperientziak izango dira eta partehartze

prozesuak egokien jotako metodologia-formatuetan proposatu daitezke: deliberaziozko prozesuak, partaidetzazko aurrekontuak, herri kontsultak, plan komunitarioak, eta abar.

**B epigrafea: udalen herritarren partaidetza eredia egituratzeko helburu duten ekintzak, programak eta tresnak:**

Epigrafe honek helburua du koherentzia eta ordena izango duen udalen herritarren partaidetza sistema integral eta integratua eraikitzen laguntzea: herritarren partaidetza udal-eredu errealista bat garatuz, udalerraren eta ingurunearen idiosinkrasiara egokituko dena, ongi egituratua eta eraginkorra.

Udalen herritarren partaidetza sistemaren egitura sortzeko edo berritzeko egokien jotako ekintzak, programak eta tresnak proposatu daitezke: partaidetza arautegia, partaidetza udal programa, aplikazio teknologikoak, udalen aholku batzordeak sortzea herritarrekin edota herritar erakundeekin osatutakoak, erakundeak eta gizarte-entitateak elkartu eta gogoeta egin dezaten guneak, eta abar.

**C epigrafea: herritarren partaidetzari buruzko prestakuntzari lotutako jarduerak:**

Epigrafe honek bi helburu nagusi ditu: udalaren, tokiko erakunde txikien eta gizartearen herritarren partaidetzari inguruan ikaskuntza eta gaitasuna indartzea eta ahalduntzeko trebatze-prozesuak garatzea.

Prestakuntza-ekintzak egokien jotako metodologia-formatuetan proposatu daitezke: ikastaro monografikoak, mintegiak, jardunaldiak, prestakuntza-topaketak, prestakuntza-trukeak, tailerrak, ikerlanak, eta abar.

Prestakuntza-jarduketak aurrez aurreko saioetan eta on-line gauzatu daitezke.

**D epigrafea: ekintza komunitarioa sustatzeko jarduerak:**

Epigrafe honen helburua da gizarte erronkei modu kolektiboan heltzen dieten ekimen eta proiektuak finantzatzea, edo hori gertatu dadin sustatzen diren jarduketak finantzatzea.

Beraz, herritarren inplikazioa eta protagonismoa bilatu eta errazten duten ekintzak izango dira, udalerrietako eta lurraldeko bizi baldintzak hobetzeko, eta gizarte inklusiboagoa eta kohesionatuagoa eraikitzeko helburuarekin.

## Gastuetarako aldi hautagarria

Dirulaguntzaren xede diren jarduerak 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera hasitakoak izango dira.

Prozesuak gauzatzeko eta zuzitzeko mugaeguna 2026ko martxoaren 19 izango da.

## Laguntzen zenbatekoa

Ondoren aipatzen den segmentazioaren arabera, dirulaguntzak zenbateko hauetakoak izango dira gehienez:

Esparruak biztanle kopuruaren arabera	Foru Aldundiaren dirulaguntza gehienez		Esparruka banatu beharreko kreditua
	Proiektuaren aurrekontutik diruz lagundu daitekeen gehieneko ehunekoa	Proiektu bakoitzeko gehieneko diru kopurua	
A.- < 2.500	% 90	10.000 €	190.000 €
B.- 2.501 - 10.000	% 80	12.000 €	195.000 €
C.- > 10.001	% 70	14.000 €	215.000 €